

## Laborategiko arauak

- Talde bakoitzak bere lan-eremuaren eta materialaren ardura izango du laborategian.
- Komeni da laborategiko mantala erabiltzea arropa babesteko.
- Ile luzea baduzu, komeni da jasota eramatea.
- Gomendagarria da segurtasun-betaurrekoak eta eskularruak erabiltzea.
- Motxilak, material pertsonala eta berokiak ez dira inoiz lan-mahaiaren gainean egon behar.
- Lan-mahaiaren gainean, beharrezkoak diren liburuak eta koadernoak baino ez dira jarri behar.
- Lan-eremua garbi eta ordenatuta eduki.
- Saiatu batetik bestera ez ibiltzen, arrazoirik gabe, eta, batez ere, ez ibili korrika.
- Laborategian erabat debekatuta dago edatea eta jatea.
- Ez probatu eta ez irentsi produkturik.
- Istripuren bat, erreduraren bat edo lesioren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi behar zaio irakasleari.

